

EGI-REN KOMUNIKATUAREN AURREAN:

PNVren gazte antolakundeak, EGIk, lau haizetara zabalduko gezurrez beteriko komunikatuaren aurrean, Kaskagorritik hurrengo jakinarazi nahi dugu.

Aste Nagusiko azken igandean, gaueko 22:30tan Kaskagorriko kide batzuek, arrazoi politikoengatik, EGIko afiliatu bat jipoitu egin zutela esan zuten. Ostean, El Correion publikatutakoaren arabera, hau gezurra dela aitortu zuten, istiluan egon omen zen gaztea Bilbokoa ez zela esan baitzuten. Gainera, jai herrikoiak antolatzen ditugun Kaskagorriko gazte guztiak txosna barruan geunden Marijaiari agurra ematen.

Lehenik eta behin, PNVko gazteek horrelako gezur bat zabalduz eta Bilboko Gazte Konpartsaren irudia zikintzeko saiakera salatu egiten dugu, hasieratik baitzekiten istiluan parte hartu omen duen gaztea Bilbokoa ez dela.

Bigarrenik, egun horretan Kaskagorri inguruan egon zen jendearekin eta txanda egiten zeuden gazte boluntarioekin hitz egin ostean, ez dugu gertakari honen berri izan duen inor ikusi, eta beraz, zalantzan jartzen dugu gertaera Arriaga atzealdean gertatu izana. Edozein istilu mota egotekotan (batez ere arrazoi sexista, arrazista edo homofobia bada) Kaskagorriko kideok beti berau ekidin edo gelditzeko ahalegina egiten dugu, eta gertatu izatekotan bertaratuko ginateke.

Hirugarrenik, beti gertatzen den bezala, istiluen inguruan ez digu inork ezer galdetu, gertakarien berri prentsaren berri izan dugularik. Intentzio txarrez beteriko aldebakarreko iritziz osatutako komunikatua publikatu egin da prentsan, kalumniatu egiten den beste aldeari galdetu gabe.

Azkenik, eta aurretik esan bezala, PNVko gazteek haien komunikatua gezurra zelaren jakitun izanik prentsa ohar hori hedabideetan zabaldutako izana mesprezagarria iruditzen zaigu. Gainera, hedabide batzuek kalumnia hau aitzakiatzat hartuta honi emandako trataera salatzen dugu. Kaskagorriren eta Bilboko gazte antolatuaren irudia zikindu nahi izan dute, konpartsatik kanpo eman den ustezko istilu baten bidez, baina ez dute haien helburua lortuko.